

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERAGOITIKO UDALA

Segurtasun betebeharrak bete ez izanagatik betearazte aginduaren espedientea jakinaraztea

Nahiz eta arauzko eran ahalegindu, administrazioari egotz ez dakioken arrazoiengatik, zerrendatzen diren pertsonen jakinarazi ezin izan zaienez gero, eta haien jaraunseak nor diren ez dakigunez, iragarki honen bidez jakinarazten zaie, Administrazio Publikoen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorritz:

Eleuteria Gutierrez Gómez

Segurtasun, osasun, apaindura publiko eta bizigarritasun betebeharrak ez betetzeagatik abiarazitako obrak egiteko agindu espedientea. Obra horiek honetan dautza: espaloia eta A-2622 errepidearen gainean fatxadako eta estalkiko materialak erortzea. Pobesko Araba kalea 54. zenbakian dagoen higiezinaren jabe zarez (katastroko erreferentzia: 796 lurzatia, 6 poligonoa, Erriberagoitia), eta aurreko egoeran dagoenez, indarrean dagoen Administrazio Publikoen Araubidearen eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. eta 46.1. artikulua xedatutakoa betez, lan horiek egiteko galdatzen dizu. Era berean, udaletxeko idazkaritzan (Araba kalea 2, Pobes) espedientean jasotako agiri guztiak aztertu ahal izango dituzu, bai eta, zure eskubideak aldezte aldera, zenbat-nahi alegazio aurkeztu ere. Horretarako, hamabost egun baliodun izango dituzu, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera.

Entzunaldi izapidea izapide hutsa da, eta ezin zaio errekurtsorik jarri. Horrek ez du esan nahi, ordea, zure eskubideak aldezte aldera, egoki deritzozuna egiterik ez duzula.

Jakin dezazun eta dagozkion ondorioak izan ditzan adierazten dizut.

Pobes, 2019ko azaroaren 5a

Alkatea

JESÚS BERGANZA GONZÁLEZ